

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai ekainaren 7an

Martha Jungwirth

Babeslea

 **Occident**

Occident aseguru-etxearentzat plazer handia da Guggenheim Bilbao Museoak Martha Jungwirthen bost hamarkadako lanari eskainitako erakusketa hau babestea. Austriar margolari garaikide garrantzitsua dugu Jungwirth, eta haren estilo pertsonal abstraktuak erreferentzia ugari egiten dizkio mundu errealarari: bere bizitzako pertsona adierazgarriak, gai mitologikoak, gaurkotasuna edo artearen historia bera, beragan arrastoa utzi duten maisuetan gorpuztuta.

Artea eta kultura sustatzeko egiten dugun lanaren bitartez, ikusleek Jungwirth bezalako artista garaikideen lan zoragarrietan sakondu ahal izatea da gure asmoa. Jungwirthek lengoaia piktoriko berdingabea asmatu du, errealtatearen baliokide propioa sortu du inkontzientearen bulkada eta beste hainbat baliabide aplikatuz; horrela, bat egiten du pentsamendutik haratago doan jakintzarekin, ahozko hizkuntzaren eta gure zibilizaziotzat hartzen dugunaren aurrekoarekin.

“Pintura forma kontua da eta, nire bitartez, arima jasotzen du” adierazi izan du artistak. Haren lanak abstrakzioaren eta figurazioaren artean dabilta, eta haien arteko gurutzaketa zirrargarri gertatzen da begietara. Jungwirthen lanek alderdi materikoa miatzen dute, eta dentsitate biluzira joaten dira; bere ibilbideko azken lanetan, aldiz, erakusketan ikusten denez, artistak jariakortasunaren, irekitasunaren eta gardentasunaren aldera jo du nagusiki.

Jungwirthek lan bati ekiten dion aldiro, “abentura” berri bat hasten du —artistaren beraren hitzetan—, eta sorkuntza prozesuan barneratzen da gai batetik abiatuta. Prozesu horretan protagonismo bizia hartzen dute zoriak, materialek eta sentipen emozional nahiz korporalek. Guggenheim Bilbao Museoan Jungwirthi eskainitako erakusketak vienar artistaren esplorazio piktoriko liluragarrian barneratzeko gonbita luzatzen digu; proposamen formal berdingabeen bitartez goxotasuna eta suhartasuna, sentsualitatea eta transzendentzia, nahitasuna eta zoria uztartzen dituen lan berezia ezagutzera edo begi berriz ikustera gonbidatzen gaitu.

Juan Closa Cañellas
Occidenten Zuzendari Nagusia

Martha Jungwirth

- Datak: ekainaren 7tik irailaren 22ra, 2024
 - Komisarioa: Lekha Hileman Waitoller
 - Babeslea: Occident
- Jungwirthen margolanak eta marrazkiak maisutasun handiz mugitzen dira errealismoaren eta abstrakzioaren arteko muga sotilean zehar. Izan ere, bere artearen helburua ez da narratiba edo errepresentazio bisual argi bat irudikatzea; aitzitik, emozioak adierazteko balio duten keinuzko trazu indartsuak eta bizitasun handiko koloreak ditu ezaugarri.
 - Pinturaren arloan ondoz ondoko joera desberdinak egon badira ere, Martha Jungwirthekek bere-berea duen estilo abstraktua jorratu du bere bizitzan jasotako eragin guztiz ugarietan oinarrituz.
 - Bere margolanak eta akuarelak giza formaren, animalien, artearen historiaren eta mundu osoan zehar egindako bidaia luzeen behaketa sakonak inspiratuak dira, eta espontaneotasunez blaituak forma alderrai eta kolore bizikoen bitartez.

Guggenheim Bilbao Museoa *Martha Jungwirth* aurkezten du, Occident babesle duen atzera begirako erakusketa. Hirurogeita hamar pieza ingururen bitartez, mundu fisikoan oinarritutako lengoia abstraktu bereziagatik gailendutako Martha Jungwirth (1940, Viena) artista austriarraren obraren sei hamarkada hartzen ditu. Hala, erakusketa honetan 1976tik 2023ra bitartean sortutako akuarelen eta olio-pinturen hautaketa bikain bat ikusi ahal izango da, baita ia 50 urteko ekoizpena biltzen duten hiru artista-liburu ere. Jungwirthen margolan eta akuarelak giza formaren, animalien, artearen historiaren eta mundu osoan zehar egindako bidaia luzeen behaketak inspiratutakoak dira, eta ariketa horretatik jaiotako lanek espontaneotasuna iradokitzen dute forma alderrai eta kolore bizien bitartez. 1966az geroztik, hau da, Joan Miró Saria jaso zuenetik Martha Jungwirthen obra espainiar estatuan erakutsiko den lehen aldia izango da.

Martha Jungwirth funtsezko figura da Austriako panorama artistikoan. Gerraosteko Vienako giro kulturean eta artistikoan murgildua, 1956tik 1963ra arte-ikasketak egin zituen Vienako Universität für angewandte Kunst-en (Arte Aplikatuaren Unibertsitatean). Pinturaren arloan ondoz ondoko joera desberdinak egon badira ere, Jungwirthekek bere-berea duen estilo abstraktua jorratu du bere bizitzan jasotako eragin guztiz ugarietan oinarrituz. Bere lehen obrek gordintasunari eta subjektibotasunari heltzeko modu berezia erakusten dute, espresionismo abstraktuaren eta halako tasun gordin eta hunkigarri baten arteko uztarketa; oinarri horretatik abiatuta garatu du, hain zuzen ere, bere-berea duen estetika. Urteek aurrera egin ahala, Jungwirthekek erakutsi du gaitasun nabarmena daukala bere lengoia artistikoa garatzeko eta egokitzeko. Bere gaiak era askotakoak dira, bere interes-guneak ere halakoxeak baitira, eta autorretratu banerakoia, paisaiak zein gaur-gaurko gertaeretan (nola diren COVID-19a edo Australiako suteak) oinarritutako margolanak egin ditu.

Jungwirthen margolanak eta marrazkiak maisutasun handiz mugitzen dira errealismoaren eta abstrakzioaren arteko muga sotilean zehar. Izan ere, bere artearen helburua ez da narratiba edo errepresentazio bisual argi bat irudikatzea; aitzitik, emozioak adierazteko balio duten keinuzko trazu indartsuak eta bizitasun handiko koloreak ditu ezaugarri. Jungwirthen margolanek pisu emozionala darien koloreak eta beren jatorria iradokitzen duten keinuzko formak erakusten dituzte, eta ez dira sailkatzen errazak. Haren obrak, une iheskorak edo irudi soilak atzemateaz gain, esperientziak, emozioak eta oroitzapen sakonak biltzen ditu. Hala, bere artearen bidez, Jungwirthekek errealitatearen labirinto mugagabeen interpretazio argigarri bat ematen digu, eta giza pertzepzioaren eta kontzientziaren sakontasunetan barrena begiratzeko aukera eskaintzen die ikusleei.

Jungwirthen margolan indartsuetan estilo zeharo inkonformista antzematen da. Ezohiko euskarrietan sortuak dira, besteak beste kartoiaren, kontabilitate-liburuen edo zatar-paperaren gainean. Izan ere, artistak etengabe bilatu du askapena errepertorio artistiko tradizionalaren konbentzioetan sartzen ez diren material ezohikoak baliatuz. Gozatu egiten du material arruntekin, alde batera utzitakoekin, ezohikoekin. Erlikia higatu horiek, beren ertz puskatuekin eta orbanekin, mihise gisa balio diote, baina orobat katalizatzen dute inhibiziorik gabeko adierazpena, eta, hala, artistak aske eta kementsu nabigatzen ditu kontrolaren eta kaosaren ertzak, muga artistiko konbentzionalaz gaindi. Jungwirthen lana ezohiko materialen hautaketa hutsetik harago doa; izan ere, materialok eraldatu egiten ditu eremu fisikoari dagozkion sistema ordenatuekin hartu-emanen. Jungwirthen eskutik, ordena ezartzeko helburua duten materialak eremu emankor bihurtzen dira artistaren keinuzko pintzelkada koloretsuentzat.

ERAKUSKETAREN IKUSPEGI OROKORRA

Objektuak eta pertsonak

Erakusketa Jungwirthen lehen lanekin hasten da, *Indesit* sailak jasotzen dituen objektu arrunten eskala handiko marrazkien hautaketa batekin. Sail horrek artistaren ibilbide artistikoaren hasiera markatu zuen — egin zituenetik berrogeita hamar urte igaro direnean ondorioztatu daitekeenez —, eta bertan ikus daiteke hasia zela pixkanaka errealismoaren eta abstrakzioaren arteko muga horretan mugitzen. Atal honetan erretratuen eta pertsona-taldeen hautaketa bat ere badago ikusgai, artistak akuarelarekin eta olio-pinturarekin soilik lan egiteko hartutako erabakiaren erakusgarri. Artista abstraktu batengan ezohikoa bada ere, urteetan zehar Jungwirthekek behin baino gehiagotan heldu izan dio erretratuaren generoari, eta koloreak eta keinu-pintzelkada adierazkorak erabilita moldatu izan du giza forma. Genero horretan egin duen lanak aurre egiten die erretratu tradizionalaren mugei, eta agerian uzten du artistak berezko trebetasuna duela modeloaren barne-esentzia eta izaera atzemateko, irudikapen literal bat sortu beharrean.

Pintura-ihesaldiak

Arreta barne-paisaian jartzeaz gain, Jungwirthekek kanpoaldera ere zuzentzen du begirada mundu naturala arakatzeko. Hala, bidaiatzea, ikerketa artistikorako modu gisa, funtsezkoa izan da bere jardunean 1970eko hamarkadaz geroztik. Jungwirthen bidaiak beti izan dira murgiltze-esperientziak, eta, horiek indartzeko, literatura klasikoa irakurtzen du, arkitekturaren historia ikasten, eta bestelako ahaleginak egiten; hala, bere bidaietan barneratutako testura kultural aberatsak eranstean dizkie bere margolanei. Bidaia horien

emaitzako pinturak ez dira bisitatu dituen lekuen irudikapen soilak, naturarekin lotutako aldarte eta sententzioen aurreko erantzun emozionalak baizik. Abstrakzioaren sintesiaren eta forma ezaguterraz bidez, Jungwirthekek barnekoaren eta kanpokoaren arteko elkarrizketa sortzen du, eta norberaren eta munduaren arteko lotura sakona hautematera gonbidatzen du ikuslea.

Animaliak iruditeria gisa

Jungwirthekek animalietan oinarrituta egin dituen azken margolanetan, klima-aldaketaren errealitate gordinean errotutako piezek agerian uzten dute historiaren eta gaur egungo gertaeren arteko lotura. Berriki sortu duen *Australidelphia* (2020) sailak Australiako ugaztun martsupialak ditu ardatz; haietako batzuei "fossil bizidunak" deitzen zaie, historiaurreko garaietatik aldaketarik izan ez duten ezaugarriak dituztelako. Saila, antzinako izaki haiei zuzendutako keinu bat ez ezik, 2019–20an Australia suntsitu zuten eta ezin konta ahala animalien heriotza eragin zuten suteei buruzko hausnarketa bat ere bada. Nahiz eta margolanak erraz identifikatzeko moduko irudietara mugatzea saihesten duen Jungwirthekek, bere konposizioetako elementu kromatikoak —motibo arrosaz, gorritz, marroiz eta beltzez osatuak— espezie haiek pairatu behar izan zuten kanpoko indarkeriaren sinbolo dira.

Artearen historia

Jungwirthekek margolari-sorta zabalera jotzen du inspirazio bila, batzuk famatuak, beste batzuk artista ez hain kanonikoak. Bere margolan-sailen inspirazio-iturri izan dira, besteak beste, Richard Gerstl, Frans Hals eta Oskar Kokoschka; horrek erakusten du artearen historia luze eta zabal esploratzen duela artistak. Bere azkenaldiko lanetan, Francisco Goyaren eta Édouard Maneten maisulanei begiratu die, eta bere lengoia artistiko bereizgarria gehitu; hala, jatorrizko iturrietatik urruntzen da, errotik. Narratiba historikoek eta interpretazio garaikideek bat egiten duten puntu horretan, nabarmena da artistak pinturaren materialtasunaren gaineko esperimentazioan darraiela, eta oreka lortzen duela keinuaren eta espazio zabalaren artean, abstrakzioaren eta errealismoaren artean.

KATALOGOA

Martha Jungwirth erakusketarekin batera, bertan ikusgai dauden lanen katalogo ilustratu jori bat argitaratuko da. Liburuak Jungwirthekek 1988an idatzitako "der affe in mir" [nire baitako tximua] poema biltzen du —bere horretan adierazpen artistiko gisa interpretatu daitekeena—, baita erakusketaren komisario Lekha Hileman Waitollerren eta Julianne Rebentisch akademikoaren saiakera argigarri bana ere.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren baitan, Museoak gune didaktikoak, eduki digitalak eta jarduera bereziak diseinatzeko dituzten erakusketa bakoitzaren osagarri; ikusgai dauden obrak balioesten laguntzen duten tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu horrela.

Erakusketa honetako Didaktikak (babeslea: EDP Fundazioa) informazio gehigarria eskaintzen du Martha Jungwirthen obrak berezkoa duen kolore- eta keinu-unibertso bereziaren inguruan, baita haren lanak maisu

zaharrei —nola diren Frans Hals (XVII. mendea), Francisco de Goya (XVIII–XIX. mendea) eta Édouard Manet (XIX. mendea)— egiten dizkien erreferentzien inguruan ere.

Didaktika osatzeko, Jungwirthekek bere lanean erabilitako materialen lagin bat dago erakusgai artistak baliatzen dituen teknikei buruzko azalpenekin batera.

Jarduerak

Inaugurazio-hitzaldia (ekainak 5)

Martha Jungwirthekek bere erakusketa jendaurrean aurkeztuko du Lekha Hileman Waitoller komisarioarekin solasean.

Hausnarketa partekatuak *

Bisita hauetan, Museoko profesionalek hainbat ikuspegi eskaintzen dituzte erakusketa berriko edukien gainean:

- Arte-arduradunen ikuspegia (ekainak 12): Lekha Hileman Waitoller, Komisarioa.
- Funtsezko kontzeptuak (ekainak 19): Luz Maguregui Urquiza, Hezkuntzako koordinatzailea.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

AZALEKO IRUDIA

Martha Jungwirth

Titulurik gabea, Australidelphia, sailekoa (*Ohne Titel*, aus der Serie *Australidelphia*), 2020

Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

241,5 x 330,9 cm

Bilduma pribatua, Londres

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Charles Duprat

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Martha Jungwirth
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Martha Jungwirth* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabil daitezke. Erakusketa 2024ko ekainaren 7tik irailaren 22ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, *copyrighta* eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, deskargatzeko aukerarik gabe.
- Irudiak ezin zaizkio hirugarren bati helarazi, ezta datu-base batera transferitu ere.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake, eta beharrezkoa da alde aurretik obraren jabearen eta *copyrighten* titularraren baimena izatea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoa-ren Prentsa Sailarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoz: media@guggenheim-bilbao.eus

Martha Jungwirthen erretratua

Argazkia © Shawn Dell

Courtesy Thaddaeus Ropac gallery, London · Paris · Salzburg · Seoul



Martha Jungwirth

Hemen eta orain eta beste inoiz ez (Hier und jetzt und nie wieder), 1982-83

Akuarela paper gainean

211,6 x 221 cm

Centre Pompidou, Paris, Musée national d'art moderne / Centre de création industrielle, Don des Amis du Centre Pompidou, Cercle International, 2021 ©

Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia © Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN-Grand Palais /

Audrey Laurans



Martha Jungwirth

Titulurik gabea (Untitled), 1990

Olio-pintura kartulina mehe gainean, mihise gainean muntatua

186 x 142 cm

The Nixon Collection

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Auktionshaus im Kinsky GmbH, Viena



Martha Jungwirth

Titulurik gabea, Spittelauer Lände sailekoa (*Ohne Titel*, aus der Serie *Spittelauer Lände*), 1993

Akuarela paper gainean

190 x 210 cm

The Albertina Museum, Vienna – The Haselsteiner Family Collection

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024



Martha Jungwirth

Titulurik gabea, Nausicaa sailekoa (*Ohne Titel*, aus der Serie *Nausikaa*), 2001

Akuarela eskuz egindako paper gainean

140 x 105 cm

Museum Liaunig

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia © Museum Liaunig



Martha Jungwirth

Laurden hutsa, Yemen sailekoa (*Leeres Viertel*, aus der Serie *Jemen*), 2005

Akuarela eskuz egindako paper gainean

104 x 140 cm

Bilduma pribatua

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Eskaintza: Galerie Krinzinger & Martha Jungwirth



Martha Jungwirth

U. K.ren erretratu (Portrait U. K.), 2019

235 x 195 cm

Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

Sammlung Österreichische Nationalbank

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia OeNB



Martha Jungwirth

Titulurik gabea, Australidelphia sailekoa (Ohne Titel, aus der Serie Australidelphia), 2020

Olio-pintura paper gainean

244 x 593 cm

Courtesy Thaddaeus Ropac gallery, London · Paris · Salzburg · Seoul

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Elmar Bertsch



Martha Jungwirth

Titulurik gabea, Australidelphia sailekoa (Ohne Titel, aus der Serie Australidelphia), 2020

Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

241,5 x 330,9 cm

Bilduma pribatua, Londres

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Charles Duprat



Martha Jungwirth

Artista-liburua (Malbuch), 2020ko hamarkada

Olio-pintura paper gainean (kontabilitate-liburu orriak)

50 x 74 cm (zabalik)

Bilduma pribatua

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Ulrich Ghezzi



Martha Jungwirth

Buzefalo (Bukephalos), 2021


Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

248 x 264 cm

Nicoletta Fiorucci Collection

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Lisa Rastl



Martha Jungwirth

Armada handia (La Grande Armée), 2021

Olio-pintura paper gainean

235 x 704,5 cm

Alex & Gabriela Davidoff Collection

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Charles Duprat



Martha Jungwirth

Zezena (Stier), 2020


Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

144,5 x 208,5 cm

Bilduma pribatua

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Lisa Rastl



Martha Jungwirth

Titulurik gabea, Francisco de Goya, Sorginen hegaldia sailekoa (Ohne Titel, aus der Serie Francisco de Goya, Flug der Hexen), 2022

Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

242,6 x 281 cm

Buffalo AKG Art Museum, George B. and Jenny R. Mathews Fund, 2022

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Ulrich Ghezzi



Martha Jungwirth

Maja III, Francisco de Goya, Maja sailekoa (Maja III, aus der Serie Francisco de Goya, Maja), 2022

Olio-pintura paper gainean, mihise gainean muntatua

264,5 x 226,8 cm

Alkar Contemporary Collection (ACC), Bilbao

© Martha Jungwirth, Bilbao, 2024

Argazkia Ulrich Ghezzi

